

Donostia, 2016ko irailaren 23a.

## KONTROL MOZIOA ZEREMONIA ZIBILAK DIRELA ETA

Irabazi Donostia taldeko zinegotzi Loïc Alejandrok, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkeztu nahi du. Mozioa, ZERBITZU OROKORREN BATZORDEAN egindako interpelazioaren ondorio da.

### JUSTIFIKAZIOA

“Izena jartzeko zeremonia zibila” ongi etorriko ekitaldi zibil bat da, xedea duena jaio berriari ongi etorri demokratikoa ematea. Tradizioa Frantziako Iraultzean hasi zen, askatasunaren, berdintasunaren eta errespetuaren printzipioen pean. Alde batetik, ongi etorri demokratiko bat da, haurra komunitatean hartzeko zeremonia bat. Beste alde batetik, hurrari izena jartzeko ekitaldia da.

Hortaz, helburua litzateke eskubide zibilak aitortzea herritarrei eta beren haurrak komunitate batekoak izan daitezen eta balio jakin batzuk bizi ditzaten gogoia adierazi duten gurasoei, iritzita udal administrazioa izatea arautuko dituen eta legezko izaera emango diena.

Zeremonia horietan, Nazio Batuek 1989ko azaroan onartutako Haurren Eskubideen Adierazpeneko 6., 12. eta 27. artikulua eta Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua irakurtzen ditu alkateak edo zinegotzi ordezkari batek. Ondoren, ziurtagiri bat ematen da zeinean, haurren izena ez ezik, jasota baitako bertan diren guztien konpromisoa haur hori hezia izan dadin bakearen, askatasunaren, justizia sozialaren eta giza eskubideen balioetan.

Laburbilduta, gizarte ekitaldi laikoa da, zeinaren bidez gizarte zibilak eta haren tokiko erakunde gorenak, udalak, kontzientzia askatasuna bermatzen baitute.

Era berean, agur zibilak gero eta ohikoagoak dira, baina ongi etorri zibilekin dagoen arazo berdina dago: Zeremonia egiteko toki egokirik ez dagoela.

Gai honi buruz interpelazioa egin genuen batzordean eta egiaztatu genuen udal gobernuak ez duela neurririk hartu ez ongi etorri zibilak ez agur zibilak bermatzeko, haren gobernu programan jasota badago ere Aieteko jauregian egingo zirela.

Hori dela-eta, hauxe da aurkezten dugun



## KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio jar dezala udaletxeko Batzar Aretoa, edo egoki irizitako beste udal eraikin batzuk, “izena jartzeko zeremonia zibilak” edo agur zibilak egiteko leku gisa.
2. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio egin dezala araudi bat, sei hilabeteko epean eta laiotasunaren alde diren taldeekin batera, Donostian ongi etorri eta agur zibilak egiteko.

Loïc Alejandro,

Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.